

ZUZENBIDE FAKULTATEKO BERDINTASUN BATZORDEAK 2013KO ABENDUAREN 17AN EGINDAKO BILERAREN AKTA

Bertaratu diren batzordekideak:

- Maggy BARRÈRE (II)
- Maite BARRUETABEÑA (presidentea)
- Arantza CAMPOS (II)
- Garbiñe ESTEFANO (AZP)

Bertaratu ez diren batzordekideak:

- Sofía ARANA (II): bertaratu ezina adierazi du
- Aitor BENGOETXEA (II): bertaratu ezina adierazi du
- Leire IMAZ (II): bertaratu ezina adierazi du
- Ikasleen ordezkaria(k)

Batzordekideak izan ez eta parte hartu dutenak:

- Oscar ARROYUELO

Berdintasun Batzordea, presidenteak zabaldutako deialdian jaso bezala, Donostiako Zuzenbide Fakultateko 3.8 ikasgelan bildu da 11:30ean.

Hartutako erabakiak:

- A) Aurreko akta onartu da.
- B) Bi jardunaldi antolatzea erabaki da. Horiek baliatuko dira esparru kolektiboak pertsonalizatzeko ekimena irabazten duten kandidatuei diploma emateko. Lehenengo jarduera mahai inguru bat izango da honako gaiaren gainean: *Giza Eskubideak, emakumeen heziketa eta Islama*. Gutxi gorabehera, 2014ko martxoaren 6an izango da. Eta gonbidatuak zein izango diren jakiteko itxoin egin beharko da harik eta Leioan hitzaldiak, jardunaldiak eta unibertsitate hedakuntzarako beste jarduera batzuk antolatzeko Óscar Arroyelok eskatutako diru laguntzak zer nolako diru kopurua jasoko duen jakin arte. Oraingoz, hauek dira proposatutako izenak: Natalia Andujar, Abdennur Prado eta Isabel Aspe Montoya.
- Bigarren jarduerarako beste mahai inguru bat egitea proposatu da 2014ko apirilaren 1erako edo 8rako: *Emakume legelarien erronkak: Sexu eta ugaltze eskubideak*. Laguntza eskatuko da UPV/EHUko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko 2014an hitzaldiak eta jardunaldiak antolatzeko egingo

den deialdiaren babesean. Mahai inguru horretarako parte hartzaile hauek planteatu dira: Garbiñe Biurrun –Maite Barruetabeña jarriko da harremanetan harekin– eta Lucía Ruano –Maggy Barrere mintzatuko da harekin–.

- C) Fakultateko irakasleei bidali zitzaizen mezu elektroniko bat eskatuz, genero edo alderdi feministari erreparatuta, ezagututako materialaren berri emateko. Irakasleek igorritako bibliografia bildu da eta Garbiñe Estefano arduratu da aurreko bibliografi bilduma gaurkotzeaz. Horiek horrela, eta bildutakoa asko izan dela kontuan hartuta, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzari eskatu zaio tresna bat (kudeatzaile bibliografikoa) gure eskura jartzeko, datu base hori era dinamikoan kontsulta dezagun. Errektoreordetzaren baimen hori noiz jasoko zain gaude. Hori iritsi bezain laster IKTen Gerenteordetzak prestatuko digu aipatutako tresna.
- D) Gaurkotu egin da Berdintasun Batzordearen web orria. Batzordekideei eskatzen diegu aldaketa horiek baloratzeko, eta aldatu beharreko zer edo zer ikusiz gero, lehenbailehen jakinarazteko. Hartara, behar diren aldaketak egingo ditugu. Planteatu da batzordearentzat helbide elektroniko bat eskatu beharra dagoela. Oscar Arroyueloren izenean egingo da eta, aurrerago, erabakiko da zein izango den izendapen egokiena.
- E) Arantza Camposek konpromisoa hartu du fakultatean, testuinguru desberdinetan, aurkezten diren zerrendak aztertzeke, eta horietan berdintasun irizpideak betetzen diren ala ez jakinaraziko digu. Oraingoz, Fakultateko Batzar, batzorde eta tesi epaimahaietako zerrendak aztertuko dira.
- F) Maite Barruetabeña ikasleen ordezkariekin mintzatu da batzordean parte har dezaten, baina ez du erantzunik jaso. Planteatu da fakultatean txartelen bat jartzeko, Ikasleen Kontseilua alde batera utzita, ikasleak batzordean parte hartzera gonbidatuz. Horretaz arduratuko dira Garbiñe Estefano eta Maggy Barrère.
- G) Proposatu da Fakultateko Berdintasun Batzordeak abortuaren legea erreformatzearen aurkako emakumeen ituna deitutako manifestua sina dezan. Manifestua Alacanteko Plataforma Feministak bultzatua da. Era berean, proposatu da aukera hori Zuzenbide Fakultateari ere zabaltzeko.

- H) Maggy Barrèrek planteatu du euskarriren bat izan beharko litzatekeela, panel edo oholen bat, nahi dutenek, ikasleek batik bat, interesgarriak diren berriak, ideiak eta salaketak jar ditzaten. Azpimarratu egin da horrek zenbait zailtasun eta konplikazio izan litzakeela. Dena dela, ez da ideia baztertu, baina argi eta garbi gelditu da ideia hori garatu eta hobetu beharra dagoela.

- I) Erabaki da mezu elektroniko bat bidaltzea berdintasunaren aldeko zuzendaritzari, besteak beste, batzordearen ideien eta proposamenen berri emanez, inskribatutako doktorego tesiak aztertzeke aukera, esaterako, eta genero ikuspegitik garatu diren ala ez. Bestalde, planteatuko da fakultateetako eta unibertsitate eskoletako batzordeak koordinatzeko organoren bat sortzea.

Bilera 13:30ean amaitu da.

Donostian, 2013ko abenduaren 17an.

Sin.: Maite Barruetabeña
(Batzordeko presidentea)